



Naturan hezi topaketak

Eka. 28 - Eka. 29 2021

Kod. H24-21

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2021

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 28 - Eka. 29 2021

Kokalekua

Eureka! Zientzia Museoa

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Ikastaroa aurrez aurre ospatuko da eta online zuzenean parte hartzeko aukera ere egongo da ZOOM bidez. Matrikula prozesuan nola parte hartuko duzun aukeratu: aurrez-aurre edota online zuzenean.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko baliozkotzea dauka (2168170025) unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat. Baita ere Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailak irakasleen etengabeko prestakuntza gisa ere baliozkotzea eskatu da.

Geroz eta ikastetxe gehiago murgildu dira naturan azken urteotan eta topaketa hauen helburua, esperientzia guzti horiek komunean jartzea izango da. Baina gainera, urtero gai baten inguruan arituko gara eta hizlari adituak ekarriz eta dinamika partehartzaileei eginez. Aurtengo gaia zein izango den? Naturan hezteak, ikastetxean dakarren eraldaketa pedagogikoa. Gehiago jakin nahi? Zatoz eta partekatu zure bizipenak naturan hezten duen komunitatearekin!

Helburuak

Naturan hezten duten artean komunitatea sortu eta saretzea.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2021-06-28

09:00 - 09:15	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Maialen Sistiaga Poveda Kutxa Ekogunea - Baso-eskolako teknikaria Irati Andoño Erdozain Kutxa Ekogunea - Baso-eskolako teknikaria Kakun Orbegozo Rezola Kutxa Ekogunea - Edukien arduraduna
09:15 - 10:30	“Naturan hezten duen hezkuntza-komunitatea “ Miriam Jiménez Ruiz Desde aquí arriba (HITZALDIA ZOOM BIDEZ) - Haur Hezkuntzako irakaslea
10:30 - 11:00	Atsedena
11:00 - 12:15	“Curriculumaren lanketa naturan“ María Mayorga Martín In Natura - Dibulgatzailea, Gizarte Hezitzailea eta kazetaria Bibiana Marful Castañal Nenea - Educación en la Naturaleza - Haur Hezkuntzako espezialista
12:15 - 13:30	“Naturan heztea, ikastetxeko proiektu gisa“ Søren Emil Markeprand Stockholmsgave eta Mikkelpborg eskolak (HITZALDIA ZOOM BIDEZ) - Zuzendari pedagogikoa
13:30 - 14:00	Sintesia

2021-06-29

09:00 - 09:15	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Maialen Sistiaga Poveda Kutxa Ekogunea - Baso-eskolako teknikaria Irati Andoño Erdozain Kutxa Ekogunea - Baso-eskolako teknikaria Kakun Orbegozo Rezola Kutxa Ekogunea - Edukien arduraduna
09:15 - 09:45	“Langile Ikastolan baso-eskola, eskolako proiektu“ Agurtzane Rama Uria Langile Ikastola - HHko irakaslea Ana Quevedo Ibarzabal Langile Ikastola - HHko irakaslea LURDES BASURTO UNSARI Langile Ikastola - HHko irakaslea
09:45 - 10:15	“Imaz Bertsolaria eskola, curriculuma naturan“ Josebe Rezola Zabaleta Imaz Bertsolaria eskola - LHko irakaslea Endoia Artieda Zalakain Imaz Bertsolaria eskola - HHko irakaslea
10:15 - 10:45	“Zaldibia, naturan hezten duen komunitatea“ Eider Amundarain Goikoetxea Lardizabal Herri Eskola - Zuzendaria Margari Eizagirre Aranburu Lardizabal Herri Eskola - Haur Hezkuntzako irakaslea Khadija El Ghaouti El Gharradi Lardizabal Herri Eskola - Erizaina
10:45 - 11:15	Atsedena

11:15 - 12:15	Talde dinamikak, landutako 3 gaien inguruan (eskolako proiektuak, curriculumaren lanketa edo hezkuntza-komunitatea). Aukeratu bat eta hasi dadila eztabaida!
12:15 - 13:15	Talde eztabaiden aurkezpenak
13:15 - 13:30	Itxiera Maialen Sistiaga Poveda
13:30 - 14:15	** Ekoguneko baso-eskola sarekoentzako bakarrik ** - Ekoguneko baso-eskola sarean dauden ikastetxeen erronda
14:15 - 15:15	** Ekoguneko baso-eskola sarekoentzako bakarrik ** - Bazkaria eta esperientziak partekatzea
15:30 - 17:00	**Ekoguneko baso-eskola sarekoentzako bakarrik** - Itxiera dinamika

Zuzendaritza



Maialen Sistiaga Poveda

Kutxa Ekogunea, Baso Eskola

Biologian doktorea da eta Euskal Herriko Unibertsitatean, British Columbiako Unibertsitatean (Kanada) eta Cagliariako Unibertsitatean (Italia) aritu izan da lanean ikertzaile eta irakasle gisa. Esperientzia zabala du aisialdi taldeen koordinazioan eta egun, Kutxa Ekoguneko Baso-eskola proiektuko arduradunetako bat da. Kutxa Ekogunean Ingurumen Hezkuntzako departamentuan ere egin izan du lan eta EuskalNatura (UEU Natur Zientziak) taldeko kidea da 2007 urtetik. Horrez gain, EHU/UEUko Online Irakaskuntza Masterreko irakaslea da.

Irakasleak

Eider Amundarain Goikoetxea



Irati Andoño Erdozain

Kutxa Ekogunea

Kutxa Ekoguneko Baso-eskola teknikaria da. EHUko Bilboko Irakasleen eskolan irakasle ikasketak burutu ditu, Haur Heziketan espezialitatea eta Bartzelonako Unibertsitatearen eskutik Ikaskuntza Espazioen Diseinua graduondoa burutu du. Esperientzia handia du haur eta gazteekin bai helduekin lanean, herrialde eta hezkuntza zein laguntza ezarpen ezberdinetan. Baso Eskola edo Forest Kindergarten proiektua lideratzen aritu da Eskozian urte luzez eta Bandera berdea (Eco Flag) lortzeko partaide aktiboa izan da.



Endoia Artieda Zalakain

Haur Hezkuntzako hezitzailea, Altzoko Imaz Bertsolaria eskola txikian 11 urte daramatza eta azken 3 urteak zuzendaritzan. Baso eskolaren inguruan formazioa jaso du. Eskolan ingurumenarekin harreman estua duten proiektuak lantzen dituzte, adibidez, Ingurumen gelakoak, Hazi ezkutuen bila (Cristina Enea), Jakoba Errekondorekin saioak...



Margari Eizagirre Aranburu

Khadija El Ghaouti El Gharradi



Søren Emil Markeprand

Kopenhageko Søtorp haurreskolako zuzendaria da, baita Danish Nature Approach zuzendariordea ere. 2011-2020 urteetan, Stockholmsgave eta Mikkelfborg baso-eskoletako zuzendari pedagogikoa izan zen. 1999an hasi zuen bere irakasle ibilbidea, AFNHa zuten ikastalde bat naturan murgilduta. Eskarmentu handia du lidergoan eta kanpoko hezkuntzan. 2015ean Txinan lehen baso-eskola bat ezartzeko aholkularia izan zen, eta 2016an "Mugarik gabeko baso-eskolen" ekimeneko zuzendari ere izan zen. Egun, EBko proiektu ezberdinekin ari da lanean, azkena, "Take Me Out" edo Irakasleentzako ikasleekin kanpora ateratzeko materiala sortzen. Haur guztiek jolasteko aukera izan dezaten nahi du. Sormena garatu, berrikuntza eta ikaskuntza ingurune naturalean eman dadin, hain zuzen.



Miriam Jiménez Ruiz

"Desde aquí arriba" blogaren sortzailea, 2015ean Valentziatik Norvegiara joan zen bizitzera, eta ordutik

han goitik bizi izan dituen abenturak partekatzen ditu. Gaur egun, Osloko Barnehage batean egiten du lan, eta aire zabaleko jolas librearen zale amorratua da, ziur baitago hor gertatzen dela magia edo, beste batzuek esaten dioten bezala, ikaskuntza esanguratsuak. Podcast bat du, hezkuntzari buruz duen ikuspegia Norvegiako bizipenekin partekatzen duena, eta gai interesgarriak jorratzen ditu, besteak beste: nolakoa izan beharko lukeen haurrak errespetatzen dituen eskola-jantoki bat, nola aurre egiten dioten Norvegiako hotzari edo nola sartu familiak egokitze-aldian.



Bibiana Marful Castañal

Esku-hartze soziokomunitarioko pedagogo espezialista da; Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikaria; koordinatzaile pedagogikoa eta naturan hezteko Nenea, medrar creando proiektuaren laguntzailea; EDNA Federazioaren sortzaileetako bat da; animaliekin lagundutako esku-hartzeetan hezitzailea eta naturan hezteko hezitzailea eta aholkularia.



María Mayorga Martín

In Natura, Fundadora

In Natura proiektuaren sortzailea. Naturako hezkuntzari dagokionez gaur egun, erreferenteetako bat da, bere esperientzia zabala, prestakuntza eta, batez ere, horretan jartzen duen grina eta maitasunagatik. Alemanian, Ingalaterran eta Eskozian barna ibili da, basoko eskolen beste proiektu batzuk ezagutzeko, eta guztietan ikusi du ereduak onarpen kulturala zuela, eta estatuaren aintzatespena. Bere webgunean, naturako ikaskuntzarekin lotutako baliabide ugari sortu ditu: artikuluak, bideoak, azterlanak eta abar, naturara hurbildu nahi duten familia eta irakasleentzat. Gainera, heziketa naturalago batera abiatu nahi duten familien eta irakasleen hezitzailea ere bada.



Kakun Orbegozo Rezola

Kutxa Ekogunea

Kutxa Ekoguneko Edukien eta Ingurumen Heziketako gaien zuzendaria da. Biologian lizentziatua da eta Zoologian espezializatua. Desagertzeko arriskuan dauden animalien mantenua zein kautibitatean ugaltzeari buruzko diplomatura egin zuen Ingalaterran eta geroztik Ingurumen Heziketan, Natur guneen erabilera publikoan eta Ondarearen interpretazioan egin du lan batik bat. Galemys S.L. enpresaren sortzailetako bat da.



Ana Quevedo Ibarzabal



Agurtzane Rama Uria



Josebe Rezola Zabaleta

Imaz Bertsolaria Herri Eskolako irakaslea eta eskolan garatutako "ama lurra" eta "zer jan, hura izan" proiektuen arduraduna.



Maialen Sistiaga Poveda

Kutxa Ekogunea

Biologian doktorea da eta Euskal Herriko Unibertsitatean, British Columbiako Unibertsitatean (Kanada)

eta Cagliariiko Unibertsitatean (Italia) aritu izan da lanean ikertzaile eta irakasle gisa. Esperientzia zabala du aisialdi taldeen koordinazioan eta egun Kutxa Ekoguneko baso-eskola proiektuko teknikaria da. Gainera, EuskalNatura taldeko kidea da eta UEUko Irakasleen Prestakuntza Masterreko irakaslea.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2021-06-02 ARTE	2021-06-07 ARTE	2021-06-28 ARTE
MATRIKULA DOAN	0 EUR	-	-
Ekogunea matrikula	32,50 EUR	-	-
Ekogunea matrikula berezia	-	65,00 EUR	-
OROKORRA	-	-	77,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA	-	-	65,00 EUR
MATRIKULA EXENTZIOA	-	-	54,00 EUR
ELKAR txarteldunak	-	-	65,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuko kide	-	-	65,00 EUR
ONLINE ZUZENEAN	2021-06-02 ARTE	2021-06-07 ARTE	2021-06-28 ARTE
OROKORRA	-	-	77,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA	-	-	65,00 EUR
MATRIKULA EXENTZIOA	-	-	54,00 EUR
ELKAR txarteldunak	-	-	65,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuko kide	-	-	65,00 EUR

Kokalekua

Eureka! Zientzia Museoa

Mikeletegi Pasealekua, 43, 20009 Donostia, Gipuzkoa

Gipuzkoa